



ZURE UDALA




ZURE HERRIA

IDIAZABAL

# Plazara!

UDAL BULETINA

Urria / Octubre 2013 / zk. 01



Bertan da  
Baserritarren  
Eguna



# Artzai gaztari gorazarre

Euskal Herriko Artzai Gaztaren XXX. Lehiaketa egingo da hilaren 25ean Idiazabalen

**U**rtero-urtero Hego Euskal Herriko hiriburuetan egin izan duten Euskal Herriko Artzai Gaztaren Lehiaketa Idiazabalen izango dugu bigarren urtez jarraian. XXIX. edizioa arrakastatsua izan bazen, datorren honek harrera ezin hobea izango duelakoan daude antolatzaileak. Hala berresten du Luisa Villegas Artzai Gazta Elkarteko Koordinatzaileak: "Joan den urtean, elkartearen 25. urteurrena ospatzeko lehiaketa herrian bertan antolatzea erabaki genuen, eta harrera bikaina izan zuen. Orduetik erabaki dugu urtero Idiazabalen egitea. Arrazoiak asko dira; besteak beste, gure herria artzai gaztaren erreferente delako, Idiazabal geografikoki bikain kokatua dagoelako, azpiegitura egokiak dituelako –batez ere aparkatzeko garaian–, antolatze lanak asko erraztu direlako eta, batez ere, gure artzainek merezi dutelako. Haiei eta Idiazabali omenaldi modura, erabaki genuen lehiaketa herrian finkatzea.

## Ekintzez jositako eguna

Euskal Herriko Artzai Gaztaren XXX. Lehiaketak ekitaldi anitz hartuko ditugu. Hala, goizeko 9:00etatik aurrera, Artzai Gaztako bazkideek ekoiztutako artzau-produktuak salgai egongo dira herrian ezarriko diren postuetan. Halaber, Artzai Gaztako kideen ganaduaren erakusketa izango da. Ezin ahaztu, bestetik, gazta egiteko eta artilea maneiatzeko tailerra izango dutela gozagarri herritar zein bisitariak. 11:00etan Artzai Gazta lehiaketaren finalean parte hartuko duten gaztak aurkeztuko dira. Final honetan lurraldeka egindako lehiaketetan, hau da, Araban (Agurain), Bizkaian (Axpe), Gipuzkoan (Legazpi) eta Nafarroan (Uharteko Arakil) sailkatutako lehen hamar gaztagileek parte hartuko dute. 12:00etan agintariei harrera egingo zaie, eta 13:30ean 2012-2013 bitarte erretiratu diren bazkideei omenaldia egingo zaie. Eguneko momentu gorena ondoren etorriko da, XXX. edizioko irabazlearen izendapenarekin.

## Luisa Villegas, coordinadora de Artzai Gazta Elkarte



*"Celebrar en Idiazabal por segundo año consecutivo el Concurso de Euskal Herria de Artzai Gazta supone para nosotros todo un orgullo y un paso adelante. Pero sobre todo es un homenaje y una muestra de agradecimiento a Idiazabal y a los idiazabaldarras; y como no, a nuestros pastores. Además, creemos que nuestro municipio está situado en un punto estratégico, tanto para el sector, como en términos geográficos, ya que estamos a una hora de distancia de todas las capitales de Euskal Herria. De aquí en adelante el concurso lo organizaremos en aquí".*



# Etengabeko hobekuntza, autokritikatik abiatuz

Esan ohi da hausnarketa eta autokritika uneetatik erditzen direla ideia eta egitasmo onenak. Azken hilabeteotan barne-lanketa sakona egin dugu, Udala eta herritarren arteko zubia eraikitzeko formulazio baten bila. Premisa horretatik abiatuz jaio da esku-artean duzun *Idiazabal Plazara!* buletina. Saiakera berri bat egin nahi izan dugu zuengana hurbildu eta Udalean zein gure kaleetan gertatzen denaren berri zuzenean emateko. Aurretik ere etxeetara jo izan dugu informazioa lutzatzeko, baina oraingo honetan modu erakargarriago batean egin ahal izateko, aldizkari formatu berri batekin gatzokizue. Udala egiten ari den lana ezagutzera ematea da helburu nagusia, zubi-lana eginez. Gardentasuna eta gertutasuna funtsezko baloreak dira Udal honentzat. Herri bat herritarrek egiten baitute. Eta Idiazabalen euren tokia merezi duten pertsona eta elkarte asko daude. Haiei guztiei ere hitza eman nahi diegu, herriari pil-pilean denon artean eusten baitiogu. Hori dela eta, hilerio eskuetan duzun buletina banatuko dugu, doan, etxe guztietan. Lau orrikoa izango da, eta hiru hilean behin zortzikoa. Horrela, kanpoan bizi diren idiazabaldarrek ere gure berri izan dezakete. Bestelako ezaugarriak dagokienez, kontutuan hartu dugu, esaterako, papera. Birziklatuaren aldeko apustua egin dugu, argi dugulako garapen iraunkorren bidetik jo behar dugula. Orrialde hauekin gozatuko duzuelakoan nago. Ea hala den!



Ioritz Imaz, Idiazabalgo alkatea.

**"Gardentasuna eta gertutasuna funtsezko baloreak dira Udal honentzat. Horregatik, hilerio lau orriko buletina plazaratuko dugu, eta hiru hilean behin zortzi orrikoa"**

**"Idiazabalen euren tokia merezi duten pertsona eta elkarte asko daude. Haiei ere hitza eman nahi diegu argitalpen honetan"**

*Se suele decir que las mejores ideas y proyectos nacen desde la reflexión y la autocrítica. Estos últimos meses hemos trabajado con ahínco de puertas para adentro, en busca de una fórmula para tender puentes entre el Ayuntamiento y los vecinos. Partiendo de esa premisa se ha gestado el boletín que tienes entre manos. Queremos hacer un nuevo intento de acercamiento a todas y todos vosotros para informaros directamente de lo que pasa en cada momento en nuestro Ayuntamiento y en nuestras calles. Anteriormente también lo hemos hecho así, pero esta vez venimos con un formato más atractivo. El principal objetivo es dar a conocer la labor que se está realizando desde el Consistorio. Pero un pueblo lo mueven sus ciudadanos/as. Y en Idiazabal hay muchas personas y asociaciones que merecen su sitio. A todas ellas les queremos dar voz, porque como ya he dicho, entre todos ponemos al pil-pil nuestro municipio. Por todo ello, este boletín que tenéis entre manos se os distribuirá gratuitamente mensualmente: será de 4 páginas, y de 8 cada tres meses. Así, podrán disfrutar de ella también los que se encuentran fuera de Idiazabal. Asimismo, hemos apostado por el papel reciclado, porque tenemos claro que tenemos que ir por la vía del desarrollo sostenible. ¡Espero que disfrutéis con estas páginas!*



## XXX. Concurso de Artzai Gazta de Euskal Herria

11:00.- Recepción de los 40 mejores quesos de los concursos de los diferentes territorios: 10 de Araba (Agurain), 10 de Bizkaia (Axpe), 10 de Gipuzkoa (Legazpi) y 10 de Nafarroa (Uharteko Arakil)

12:00.- Recepción a las autoridades.

13:30-14:00.- Homenaje a los socios de Artzai Gazta Elkarte que se han jubilado en 2012-2013; acto seguido, entrega de premios y nombramiento del ganador de la XXX Edición del concurso.

Durante toda la jornada:

Puestos de productos artesanos elaborados por socios de Artzai Gazta Elkarte

Exposición de Ganado Autóctono, procedente de caseríos de los miembros de la asociación.

Talleres de elaboración de queso y de manejo de la lana.



# Gure esentzia bizirik mantendu dezagun

El título de la afamada película “Mi vida sin mí” bien podría aplicarse a nuestro caso: “Idiazabal sin Idiazabal”. Y es que la actual coyuntura económica y el cambio de hábitos de consumo están afectando gravemente a nuestro patrimonio más valioso: los productos agroalimentarios. ¿Qué sería de nuestro pueblo sin ellos y, sobre todo, sin el queso? Al igual que el primer sector ha ido decreciendo de forma estrepitosa, así lo ha hecho el consumo de nuestros productos en nuestras propias casas. El Ayuntamiento, consciente de la gravedad de la situación y de lo que ésta puede acarrear en el futuro, puso en marcha hace un año el proyecto Gaztaren Mamia, una iniciativa que seguro, con la voluntad e implicación de todas y todos los idiazabalarras, recogerá sus frutos a largo plazo.

## Zer da Gaztaren mamia?

**Jabier Jauregi,**  
Idiazabalgo lehen sektorearen dinamizatzailea.

“Gaztaren Mamia egitasmoarekin herri-mailako ekintzak jorratu nahi dira; batetik, herriko nekazaritzari begira (baserritar, abeltzain, artzain, gaztagile), haien lana babestuz eta bultzatuz. Bestetik, herriko merkataritzari zuzendutako ekimenak egin nahi dira, herriko produktuak saltzen laguntzeko, herria elkarri lagunduz egiten delako. Guzti horretarako mota ezberdinetako ekintzen plangintza egin dugu, egunerotasunean lor daitezkeen emaitzez gain, epe luzean lortu nahi ditugun xedeetara heltzeko”



## Martxan jarri beharreko ekintza motak:

- 1.- Herri-mailan, nekazaritza eta abeltzaintza mantendu eta ahal den heinean indartu ahal izateko.
- 2.- Herriko gizarteari begira: eskolako umeetatik hasi eta beste hainbat arlo uztartzen dituzten eragileekin, hala nola, elikadura, herrigintza, paisaia, e.a
- 3.- Herri mailan, merkataritzari begira: harategiak, dendak, jatetxeak, tabernak, eskolako jangela...
- 4.- Herrira etortzen diren bisitariei begira, hots, gaztak erakarrita etortzen diren turistentzat.

## Oharra

Idiazabal Plazara! argitalpen berri honek konpromisoa hartzen du herritarrei Gaztaren Mamiaren bueltan ematen diren nobedadeen eta ekintzen berri emateko. Hala, egitasmo honen jarraipena egiteko aukera izango du herritar orok, baita aktiboki parte hartzeko parada ere.

## Baserritarren Eguna, ate joka

La segunda edición del Baserritarren Eguna, organizada en el marco del proyecto Gaztaren Mamia, se celebrará el sábado día 12. La jornada estará repleta de actividades para todos los públicos. Cabe destacar la publicación de una revista que recoge la información de todos los caseríos en activo de Idiazabal, así como la proyección de un audiovisual que refleja la esencia de nuestro pueblo.



### HERRIKO BASERRITARREN EGUNA

**URRIAK 12, larunbata**

IKUSKIZUN GUZTIAK, GOIZEKO 9 etatik aurrera.

#### Frontoi zaharreen:

HERRIKO BASERRIETAKO GANADU ERAKUSKETA (ARDI, BEHI, BEHOR, AHUNTZ).

#### Herriko Plazan:

HERRIKO PRODUKTUEN SALMENTA eta ERAKUSKETA (GAZTA, FRUTA, EZTIA, ARKUMA LARRUA eta ARDI ILEAREN ERALDAKETA).

IPARRALDEKO PRODUKTUEN SALMENTA (GAZTA, TXERRIKIA, ARDOA, PIPERRA, MENDIKO GAZTA).

EGUERDIKO 14,00etan PILOTALEKUAN (HERRI BAZKARIA: URBIZU BERRI BASERRIKO TXEKORRA).



Alberto Aldasoro,  
baserritarra



“Idiazabalgo gizartearen inplikazioa funtsezkoa da guztion etorkizuna bermatzeko”

### Zer iritzi diozu Gaztaren Mamia egitasmoaz?

Oso proiektu interesgarria da. Pertsonalki onargarritzat hartu nuen lehen momentutik. Erditzen edo jaiotzen ari den ekimena da, eta hori garatzea izango da bai politena baina baita zailena ere. Ildo egokitik bideratuz gero, onura izugarriak ekarriko ditu, landa-eremuarentzat eta oro har Idiazabalgo gizarte osoarentzat.

### Beraz, baserritarren zein herritarren inplikazioa funtsezkoa ikusten duzu proiektuaren etorkizuna bermatzeko.

Hori da. Egia da baserritarrok beste nortasun bat dugula; gure lan egiteko eta bizitzeko modua ez da kalekoen berdina. Gauzak beste erritmo batean egiten ditugu, eta agian ez gara gure sen-

timenduak erraz kanporatzen dituzten horietakoak. Baina guztiok prest gaude Udalak mahai gainean jartzen dituen ekintzetan parte-hartzeko, eta hori da garrantzitsua; oso gustura egingo dugu gainera.

### Gaztaren Mamiaren baitan sartzen da urriaren 12ko Herriko Baserritarren Eguna. Gogotsu al zaude eguna iristeko?

Bai, gogotsu nago. Ondo dago gure produktuak kalera atera eta gizarteratzea. Dena den, esan beharra dago lehen sektorea sekulako krisia jasaten ari dela, eta hortik ateratzeko beharrezkoa dugu Idiazabalgo gizartearen inplikazioa. Gizartea asko industrializatu da oro har eta, paradokikoa dirudien arren, bertan ditugun produktuei bizkar eman eta merkatal zentroetara joan ohi da herritar asko elikagaiak erostera. Aldiz, gure produktuak oso preziatuak eta estimatuak dira nazioarte mailan. Hori da, hain zuzen, Gaztaren Mamia proiektuaren erronka nagusietako bat: Idiazabalen ekoizten ditugun produktuak berbideratzea. Lan handia egin behar da horretarako, eta zenbait urte pasako dira hori lortu arte. Herritarrek sentitu eta barneratu behar dute bertako produktuak eskura edukitzeaz gain, punta-puntakoak direla eta guztion etorkizuna bermatzeko behar-beharrezkoa dela horiek kontsumitzea.

# Udako kanpaina, borobila

Ekainaren 1etik Irailaren 15era 1807 bisitari izan ditu Gaztaren Interpretazio Zentroak. %23,4ko gorakada egon da 2012.urtearekin alderatuta.

## Bisitarien jatorria, hilez hil:

- Ekainean bisitarien %68a Euskal Herrikoa izan zen; aipagarria da Bizkaitatik etorritakoen kopurua, %33a. Espainiar Estatuko beste erkidegoetatik %7, eta turista atzerritarrek %16.
- Uztailean %36,52 Euskal Herriko bisitaria izan da. Espainiar Estatuko beste erkidegoetatik %51,40, gehiengo katalanarekin, %7,87a.
- Abuztuan euskal bisitarien beherakada nabarmena izan da, %8,72rekin. Estatuko beste erkidegoen igoera berriz, %83,88ra iritsi da. Hauen artean deigarria da Katalanen portzentaia, %46arekin; hauez gain: Madril %13,16, Valentzia %8,39 eta Andaluzia %7,24. Atzerriko turismoa %4,44koa izan da, Frantzia eta Estatu Batuetako bisitarien gehiengoarekin. Aurtengo abuztuko datuak joan den urteko abuztukoekin alderatzen baditugu, ondoriozta de-



zakegu Euskal Herriko bisitarien kopurua igo dela, Estatukoa zertxobait igo deka, eta atzerrikoak, aldiz, jaitzi.

## Ekimen berriak:

- Bisitari askok herriko gaztandegiak bisitatzeko aukera izan dute, Ondramuño eta Gaztañaditxulo bereziki.
- Aurtengoan ohiko eskaintza turistikoaz gain, Idiazabalgo lehen sektoreko hainbat ustiapen bisitatzeko aukera ere eskaini zaio bisitariari eta ohiko gaztandegiez gain, Arimasagasti gaztandegira eta Atxurbiko Larreak ezagutu dituzte.

## Herria hobetzen



**ARIZKORRETA FUTBOL ZELAIA**  
Egoera txarrean zeuden aldagelatako baldosak aldatu dira Arizkorreta futbol zelaietan. Teilatuko petoetako txapelak eta egoera txarrean zeuden aukietako estalkiko polikarbonatozko piezak berrizatu dira; Tabernako altzariak eta biltegian garbitzeko gunea berritu zirenez, igeltsotza lanak, iturgintza, elektrizitatea, tabernarako apalategi berria eta biltegirako garbigailuarentzat saneamendua eta ur-hartunea egin dira. Aurrekontua: 10.131,58€.



**LARREETAKO PISTA**  
Beharrezko sendotasuna emateko fundizio-eskoriaz eman zaio mendiko pista-ri, eta harrobiko material ez estali da ondoren. Lan horiek gauzatzeko garaian, ganaduzaleek eskatuta, hainbat drainatze-hodi jarri dira bidearen egonkortasuna denbora luzean denbora bermatzeko aldera. Aurrekontua: 44.558,25€.



**ASFALTATZEA**  
Herriko zenbait gune asfaltatu eta margotu dira: Segurako biribilgunetik txirira artekoa (Ampoko biribilgunea barne), Plaza Nagusiko zuhaitz-guneko zoru eta Arimasagasti auzoko zubia. Horiekin batera, Segurako biribilgunetik Plaza Nagusira arteko bidea, "todounoz" estali eta asfaltoz txukundu zen errodadura geruza. Aurrekontua: 28.602,95€. Etxegarate inguruko bidea ere behera joan zen mendiko urak eraginda. Udalak hori konpontzeko beharrezko obrak egin zituen. Aurrekontua: 5.347,84€.



**BASERRI BIDEAK (LUIZIAK)**  
Aurten gertatuko luiziek herriko gune desberdinak kaltetu zituzten. Esaterako, Empaolatzarako bidea bi puntutan joan zen maldan behera. Azaleratzen zuen larritasunagatik, harriz bete zen asfaltoz txukundu zen errodadura geruza. Aurrekontua: 28.602,95€. Etxegarate inguruko bidea ere behera joan zen mendiko urak eraginda. Udalak hori konpontzeko beharrezko obrak egin zituen. Aurrekontua: 5.347,84€.

# Organikoaren birziklapena sustatzeko kanpaina martxan

Hilaren 21ean eta 22an Sasieta Mankomunitateko bi teknikari Plazan egongo dira, bizilagunen artean edukiontzi marroiaren erabilpena bultzatzeko, informazioa eskaintzeko, eta izen-emateak gauzatzeko, besteak beste.

Idiazabalgo Udalak birziklapen tasa areagotze bidean lanean dihardu. Herrian edukiontzi marroiaren erabilpena bultzatu nahi dute udal ordezkariak, eta horrexegatik kanpaina bat abian jarriko da hil honetan bertan. Sasieta Mankomunitateko bi teknikari herriko plaza hartuko dute datozen urriaren 21ean eta 22an, bizilagunekin hartu-eman zuzen bat mantentzeko eta edukiontzi marroiaren erabilpena bermatzeko aldera ahalik eta izen-emate gehienak jasotzeko. "Informazio puntu bat jarriko dugu Plazan, haima bat hain zuzen, mahai bat eta bi aukierekin. Girtzeko musika jarriko dugu. Bertan idiazabaldarrek edukiontzi marroiaren kanpaina izena emateko aukera izango dute. Gainera, momentuan bertan emango zaie edukiontzi marroia erabiltzeko materiala, hots, poltsak, giltza eta kuboa", azaldu dute Mankomunitatek.

Urriaren 21ean goizez egongo dira - 9:30-12:30- eta 22an, berriz, arratsaldean (16:30-19:30). Gainera, etxe

guztietara gutun bat bidaliko da asteen zehar egongo diren ekintzak aurkeztuz eta gutun horiekin "Hondakinak ondo bereizteko gida" banatuko da. Gida honetan modu grafiko eta errazean hondakin mota bakoitza nora bota behar den azaltzen da.

## Urriaren 24n, etxeko txikienentzat pailazoaren emanaldia

Birziklapenak ez du ez sexu ez adin desberdintasunik egiten. Hala, gaztetxoek ere birziklapenaren garrantziaz ohar daitezten, Patxin eta Potxin pailazoek erakustaldi bikaina eskainiko dute datorren hilaren 24an, futbito zelaietan -eguraldi txarra eginez gero, Guraso Elkartearen egongo da-. "Familia guztia animatu nahi dugu ikuskitunaz gozatzera, ondo pasatzeaz gain, balore jasangarriak barneratzeko aukera ederra izango dute-eta".

**Hondakin mahaia sortu da Idiazabalen, herritarren artean birziklapen tasa handiena lortzeko formulazio bateratu bat zehazte aldera.**

**Bileren datak:**

**Urriak 8, asteartea.**

**Urriak 29, asteartea.**

**Azaroak 12, ostirala.**

**(\*) Bilera guztiak arratsaldetik 18:00etan izango dira, Udaletxeko areto nagusian.**

## Zure odola, nire odola

Los donantes de sangre de Idiazabal nunca fallan. Siempre están ahí cuando se les llama, con una predisposición admirable. Y es que nuestro pueblo cuenta con 150 donantes; todos ellos, siempre dispuestos a ayudar al prójimo y a salvar vidas. Otra buena noticia se une al carro: el próximo 27 de octubre se celebrará el Reparto de Insignias y Diplomas a Donantes de la comarca, donde se premiará a los donantes más fieles.

### Urriak 27, Bailarako Odol-Emileen Batzar Orokorra // Insignien eta Diplomen banaketa

Lekua: Udal kiroldegia

11:45.- Saridunei harrera, txalaparta doinuez jantzita

12:00.- Alkatearen agurra. Bertan izango dira baita ere Goierriko eta lurraldeko Odol-Emileen Elkarteko ordezkariak.

Dantzari talde batek erakustaldia eskainiko du.

14:00.- Bazkaria Olaberriako Arrieta Jatetxean.

### Javier Sánchez, miembro de Donantes de Sangre de Idiazabal

*"Nos sentimos muy orgullosos de los donantes de Idiazabal. Pero quisiéramos hacer un llamamiento a los jóvenes. Es vital para la supervivencia de nuestra asociación que se dé un relevo generacional. El próximo día 16 el autobanco visitará Idiazabal, de 18:00 a 20:30h; animo a todos los vecinos a que acudan a donar sangre"*



## Campaña para el fomento del uso del quinto contenedor

La Mancomunidad de Sasieta instalará una mesa en la plaza del Ayuntamiento los días 21 y 22 de octubre. Dos técnicos se encargarán de atender a los vecinos, quienes podrán:

- Recabar información sobre el uso del contenedor marrón
- Formalizar la inscripción para empezar a utilizar el contenedor marrón.
- Recoger el material necesario al instante: cubo, llave y bolsas.
- Día 21: a la mañana de 9:30 a 12:30h
- Día 22: a la tarde, de 16:30 a 19:30h

Además, el Ayuntamiento, en colaboración con la Mancomunidad, ha organizado un espectáculo de payasos que girará en torno a la importancia del reciclaje. Será el día 24 en el campo de futbito.



# Urria

Astlehena	Astearte	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
	1	2	3	4	5	6
7	18:00etan: Hondakinen mahaiaren bilera. Udaletxeko areto nagusian.	19:00etan: "Baserriaren atzean" hitzaldia. Gaia: Haragia.	16:30ean, Euskara Batzordea. Gaia: Euskara Plana (Udaletxean).	11	12 Baserritarren Eguna (Frontoi zaharrean).	13 Jubilatuen Eguna.
14	18:00etan: Kultur programazioa adosteko Batzorde parte-hartzailea. (*)	16	17	18	19	20
09:30-12:30: Organikoa birziklatzeko kanpaina. Plazan.	16:30-19:30: Organikoa birziklatzeko kanpaina. Plazan.	23	17:30etan: Potxin eta Patxin pailazoak. 18:30ean: Kantupoteoa.	Euskal Herriko Artzai Gaztaren Txapelketa.	26	Goierriko Odol Emaileen Bilkura (Kiroldegian).
28	29	30	Arte Erakusketa- ren inaugurazioa (Udaletxeko Areto Nagusian).			

(\*) Gaia: 2014ko urtarrilera bitarteko kultur programazioa osatzea (Udaletxean)

## 2013-2014 IKASTAROEN ZERRENDA

### Hasiera data

#### Kultura (haur eta nerabeak)

Ludoteka .....	Urriak 7
Euskal dantza .....	Urriak 7
Arte plastikoa .....	Urriak 2
Musika eskola.....	Hasita
Gaztelekua .....	Urriak 12

#### Kultura (helduak)

Euskal Dantza.....	Urriak 11
Joste-Lanak.....	Urriak 8
Egur-lanketa.....	Urriak 10
Hari lanak .....	Urriak 11
Musika Eskola.....	Hasita

#### Teknologia Berriak

Internet hastapena I.....	Izen-emate iraunkorra
Internet hastapena II.....	Izen-emate iraunkorra

#### Euskara

Euskarako Klaseak.....	Urriak
------------------------	--------

Izen-emate epea irekita dago.  
Interesa dutenentzat:  
Telf.: 943187099

IDIAZABALEN *bizi ta erosi*